




Venuserantz dantzan

Venuserantz dantzan

Testua: Violet Trefusisek Vita Sackville-West bere maitaleari idatzitako gutun sorta baten interpretazio librea

Argazkiak: Ainhoa Güemes

Performer: Helena Ramírez







Une honetan, nire irudimena orain arte ezezagunak ziren latitudeetara igotzen ari da, eta, egia esan, ahal nuen guztia gaintitzen dute bitxikeriaz.





Oso ona bazara, eta Itsaso Gorrian itotzen ez bagara, eltxoek irensten bagaituzte edo tximinoek (Mowgli *Oihaneko liburuan* bezala) harrapatzen bagaituzte, zafiroak, perlak eta errubiak ekarriko dizkizut, apaingarri bihur ditzazun.









Gogoratzen al dituzu goizaldean etxe inguruan zebiltzan indioilarrak, etengabe eta garrasi sarkor baina diskordanteak eginez, mendiei su ematen zieten egunsenti fantastikoak, zizelkatu gabeko errubiak bailiran?

Nire azken pasio bulkadari erantzuna
jaso nahi dut.

Oraindik ez badakizu ere, poztasunean
sufrimenduetan bezain primitiboa naiz.





Zure galderari erantzun behar ote diodan galdetzen ari natzaio neure buruari, gainerakoan batere diskretua ez den galdera bat, errieta gogorra merezi duena. Erantzun, ez erantzun, erantzun! Infernura diskrezioa!



NY.T. ROMA





Tira, galdetzen didazu zergatik maite zaitudan. Vita maite zaitut, zu konkistatzeko hainbeste borrokatu naizelako. Maite zaitut, Vita, ez didazulako eraztuna itzuli. Maite zaitut ez duzulako inoiz ezertan amore eman; maite zaitut inoiz ez duzulako kapitulatzeko. Maite zaitut zure adimen zoragarriagatik, zure asmo literarioengatik, zure koketeria inkontzienteagatik. Maite zaitut ez dirudizulako ezertan zalantzan zaudela. Nigandik zuegan ere badagoena maite dut: irudimena, gustua, intuizioa eta hamaika gauza.



NY T. ROMA



Vita maite zaitut, zure arima ikusi dudalako.





Éta mendi eta haranetatik abiatzen zaren ibilaldi basati handi horiek, konpainia bakarreko mastin batekin? Eta zero distiratsu baten azpiko fantasia horiek? Eta eroritako horma zahar horiek, zeinen azpian babestu baitzinen? Eta giza izpiritu zitalarekiko mugarik gabeko mesprezu hori, zure ustez gainditua izatea beste eginkizunik ez duena, akusatuak izateko beste ezertarako balio ez diguna?





Duela ez lau hilabete, dena dantzaldiak ziren, kotilioiak, festak, eta ez dakit zer gehiago zure gozamenerako, eta liluratuta ematen zenuen (nik uste, behintzat, emakumeak hain dira sakonak...).

Entzun iezadazu, eta esango dizut zer gertatuko den bide horretatik aldentzen jarraitzen baduzu, munduak, adostasun orokorraren bidez, zuri esleitzea atsegin duena.

Colonia Roma hotel honetako ohetik
begiratzen zaitut ilunabar perfektu batean.

Ai, jaiotzetiko pinpirina! Ez dago zer eginik!

A, ez nintzen konturatu itsaso barea asalda
daitekeenik.





Mila eta bat gauetako lorategi baten
mutur urrunenean hazten diren banbuzko
landare erraldoien gorabehera ikaragarriaren
azpian ikusten zaitut, edo, nahiago baduzu,
zure dantza honek Doradoren antza du.



Gustatzen zaizkizu orkideak?

Niri asko gustatzen zaizkit.







Ikusiko bazenitu (eta dantzan ikusiko bazina) une honetan: adierazkorrak, mordotuak, purpurak, narkotikoak, noizean behin orkidea plebeioei dagokien aliantza txar batek lotsatuta...


Ez al dut deskribapenetarako talenturik, kuttuna?

Nonahi islak, nonahi argia.

Atsedeen absolutuko lurra, edertasun absolutukoa, lur aberatsa, lur sinestezina, fruituz eta espeziaz lehertzen dena, lur bermelloi koloreko garbitasuna, argiaz maitemindua, eguzkiz horditua.

Zorabiatuta nago, altueraren zorabioa da.

Ikusmena bikaina da.



NY.T. ROMA






Alferkeria subiranoan nagoela esan beharrik ez dago, eta montzoi batek bakarrik aterako ninduke nire dibanetik, Vita maitea.

POSDATA: Zer deritzozu nire ekialdeko estiloari? Ni txundituta nago. Gainera, existitzen den izaerarik moldagarrienetako bat izateko ilusioa egiten diot neure buruari.





ZINEGOAK

2022

Bilboko Gaylesbitrans 19. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia

Nola esan/izan bollera?

artecnociencia@gmail.com